UDALERRIKO ZENBAIT LEKU ASFALTATZEKO LANAK ESLEITZEKO

BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAK

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da 2025 urteari dagozkion asfaltatze-lanak, proiektuan zehazturikoak, egitea.

Lana Bergarako hainbat puntutan egingo da:

- Ibarra kalea
- Iriburu kalea
- Osintxuko sarrera

Jarduketa puntualak egin behar dira, herriko bide-sareko hainbat puntutan, guztiak udalerriaren barruan, obra proiektuaren arabera.

Bestalde, obra unitateak aurreikusitakoak baino gutxiago izanez gero, edo/eta proiektuko aurrekontuan aurreikusitakotik beherapen ekonomikoa badago, sortu daitezkeen aurrezpenak Bergarako beste puntu batzuetan asfaltatze-lanak egiteko erabiliko litezke, betiere kostu gehigarririk erantsi gabe makinen edo pertsonen leku aldaketagatik, eta beti lizitazio-prezioaren zenbatekoaren barruan. Lan gehigarri horiek gauzatu baino lehen, aurrekontu gehigarria onartzeko berariazko aldaketa-erabakia hartu beharko da, eta kontratu honen bidez kontratatutako prezio unitario berberean. Lan gehigarriak eta asfaltatze-kontratuaren barruan egindako lanak . kontratatutako prezio unitario berberean egingo lirateke.

2.- AURREKONTUA

Aurrekontu osoa hau da: **199.857,20 euro; Gastu Orokorrak, Etekin Industriala eta BEZ barne.**

Bakarrik onartuko dira eurotan eta beherantz egindako eskaintzak, betiere Klausula Administratiboen Pleguaren proposamen-ereduari jarraituz aurkezten badira.

Era berean, erantsi beharko du unitateko prezioen zerrenda bat prezio deskonposatuekin. Prezio horiek kontratua bete bitartean iraungo dute.

Aurrekontua egin ahal izateko, aurretik eremu guztiak bisitatzea gomendatzen da.

3.- EXEKUZIO-EPEA

Asfaltatze Plan honen xedeko lanak burutzeko epea, gehienez ere, **ZAZPI ASTEkoa** izango da, zuinketa egiaztatzeko akta izenpetu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

Asfaltatze- eta margotze-lanak gauez egin ahal izango dira, eta baita exijitu ere lan batzuk gaueko lan-jardunean egitea.

4.- BALIABIDE LAGUNGARRIAK ETA SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Adjudikazio-hartzailea behartuta dago obretara ekartzen behar den makineria eta baliabide lagungarriak, obra behar bezala eta kontratuan hitzartutako epeetan egiteko. Erabiliko diren makineria eta baliabide lagungarriek indarrean dagoen araudia bete beharko dute. Halaber, obrarako izendatutako ibilgailu guztiek dokumentazio administratiboa indarrean izan beharko dute (matrikulak, aseguruak, etab.). Hala, ibilgailu guztiek beren matrikula eraman beharko dute asfaltatze-puntu desberdinen artean mugitzeko, edo bestela, gondoletan garraiatu beharko dira lizitatzailearentzat gastu gehigarririk eragin gabe.

Gainera, beharrezko segurtasun-neurri guztiak hartu beharko ditu langileak, bertatik dabiltzanak edo mugakide diren propietateak babesteko.

Obrak behar bezala egiteko eta edozein obra-unitate bukatzeko behar diren lan guztiak eta baliabide lagungarri eta materialak, bai eta laneko segurtasun eta osasuneko unitate edo elementuak ere, prezioan bertan sartuta daudela kontsideratuko da, nahiz eta guztiak ez agertu zehaztuta prezioen deskribapenean.

Bestalde, ez da onartuko inolako kontu-sail berezirik sarbideak egokitzeari buruz, obrako materialen garraioari edo zamalanei buruz eta ezta obra-bukaerako garbiketari buruz, ez bada aurrez obraren aurrekontu orokorrean sartuta zegoela; izan ere, gastu horiek obra-unitatearen aleko prezioetan sartutzat hartzen dira.

Halaber, enpresa kontratistak bere kontura jarri beharko ditu behar diren seinaleak, obrara iristeko bidea adierazteko, obren hasiera eta exekuzio-epeak adierazteko, lan-eremuetan trafikoa edo oinezkoen joan-etorriak erregulatzeko eta arriskua izan dezaketen lekuak adierazteko –jarduketa-eremuan bertan nahiz haren mugetan edo inguruetan–, eta gainera, obraren izaeraren arabera bete beharreko segurtasun-neurri guztiak hartuko ditu pertsonentzat eta ondasunentzat. Era berean seinaleztatu egin beharko dira obra-garairako oinezkoentzako pasabide alternatiboak eta horietan sortu litezkeen aldaketak.

Era berean, enpresa kontratistak, Udaltzaingoak azalduriko aurrerapenarekin, obra-guneak seinaleztatuko ditu, beharrezko jakinarazpenak egin eta zabalduko ditu afektatutakoek ezagutu dezaten, bai eragina atari, garaje edo merkataritza-lokaletan denean, bai bide publikoko aparkalekuetan denean.

5.- AZPIKONTRATISTAK, HORNITZAILEAK ETA BESTE BATZUK

A artxibo elektronikoan aurkeztu beharreko dokumentazioan aipatu egin beharko da adjudikazio-hartzaileak zein enpresa azpikontratatzea aurreikusten dituen, bai etxe espezializatuek egin beharreko obrako aspektu batzuetarako (adierazita enpresa bakoitzak zein kontratu-zati egingo duen, bide-pintaketa...) –eta betiere lizitatzailea espezialitate horiek

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

(instalazio espezifikoak…) garatzeko sailkaturik edo homologaturik egon ezean-, bai eta lizitatzaileak azpikontratatzea egoki irizten dituen beste lan batzuetarako ere.

Kontratista behartuta egongo da bilera bat egitera azpikontratatutako enpresa instalatzaile bakoitzarekin, obra-zuzendaritzarekin eta obraren gerentziarekin –azken honek horri egoki baderitzo–, azpikontratatu behar den edozein instalazio edo obra-zati exekutatu baino lehen.

6.- LAN-PROGRAMA.-

Lanen Programa eguneratu egin beharko du kontratistak kontratu-baldintzak aldatzen diren bakoitzean, eta programa finkatu, eguneratu eta egunean jarri beharko du, Administrazioak ematen joango den jarraibideen arabera.

Obra bat gauzatu eta hurrengo egunean, obra-zuzendariak, kontratistarekin batera, gauzatutako obraren neurketak egingo ditu, horretarako partaideak obra-lekura bertaratuta. Azalekoak ez diren eta begi hutsez ikusi ez daitezkeen soluzioei buruz, informazio grafikoa egon beharko da.

Halaber, obra-zuzendariak, horrela beharrezkotzat jotzen duenean, argibideak eskatu ahal izango ditu obra-zati ezberdinei buruz, exekuzio-plan xehatuari buruz edo plano eta kalkulu osagarriei buruz, horiek gauzatu aurretik onartu ahal izateko; izan ere, onartu ezean ezingo dira gauzatu.

Obra-zuzendariak ziurtagiriei biderik ez ematea erabaki ahal izango du, harik eta kontratistak lan-programa behar bezala aurkeztu arte, eta, hala badagokio, ziurtagiri horiek berandu ordaintzeagatik berandutze-interesik jasotzeko eskubiderik gabe.

7.- OBRA-BISITALDIAK

Obra-bisitaldiak egingo dituzte udalak izendatutako gerentziak beharrezkotzat jotzen dituen guztietan, eta behintzat astean behin. Horietara, nahitaez joan beharko dira obra-zuzendaritzako teknikariak eta obra-burua, eta beharrezko ikusten duenean udalak izendatutako gerentziako kideren bat.

8.- PROIEKTUA EXEKUTATZEKO BEHAR DIREN BAIMENAK

Enpresa adjudikazio-hartzaileak behar diren gestioak egin beharko ditu, bai enpresa hornitzaileen aurrean bai administrazio eskudunen aurrean, proiektua exekutatzeko behar diren baimenak lortu ahal izateko, baina eskabide formalak Udalak beteko ditu.

9.- OBRA-ITXITURAK ETA OBRA-SEINALEAK

Adjudikazio-hartzailearen erantzukizuna izango da obra-gunea zuzen ixtea eta obraren seinaleztapena egitea; horretarako, seinaleztapena zuzen egiten dela bermatzeko moduko materiala eta seinaleztapen-langileak izan beharko ditu.

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

Adjudikazio-hartzailea behartuta dago obraren inguruko zirkulazioa (oinezkoena eta ibilgailuena) segurtasun-baldintza egokietan mantentzera; horrek eskatuko du araudi-neurriak hartzea seinaleztapen bertikal eta/edo horizontalari buruz eta informazio-kartelei edo errotuluei buruz; azken finean, oinezkoen, auto-gidarien eta obrako langileen segurtasuna uneoro bermatzeko. Halaber, obra ingurua garbi izango dute, bai eta galtzadak eta espaloiak ere, bide segurtasunarengatik Era berean, galtzaden eta espaloiek garbiketa zaindu egin da, bide-segurtasun arrazoiengatik.

Jarri beharreko trafiko-seinaleak arauzkoak izan beharko dira, eta horien antolaketa egokituko egingo zaie hiri-ezaugarriei, bai eta obra dagoen lekuari ere, eragindako bide zatiari dagokionez.

Kontratistak obra identifikatzeko eta/edo obraren zaintza-neurriak ezartzeko eta adierazteko jarri behar dituen kartel eta seinale guztiek testua euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dute.

Trafikoko seinaleei dagokienez, Udaltzaingoaren baimena beharko da obra hasi aurretik (943779106).

10.- ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

Obrak behar bezala exekutatzeko behar diren obra-hartuneak adjudikazio-hartzailearen kontura joango dira (energia elektrikoaren horniketa, telefonia, ura eta abar), bai hartune horiek lortzeko gestioak bai horien kontsumoak. Halaber, Udaleko Ur Zerbitzuan (943779116-616936943) ur-horniketaren eta saneamenduaren hartune-eskariak aurkeztu beharko ditu; izan ere, horiek ez baditu, ezingo du lanetan hasi.

Obrak bukatutakoan, obra-zuzendaritzak eta sustatzaileak ezarritako epean, kontratistak erretiratu egin beharko ditu instalazio, erreminta, material eta abar guztiak, eta obraren garbiketa orokorra egin beharko du.

Obren eraginez berriro jarri edo aldatu behar badira azpiegitura-sareren bat, arketa, arketa-tapa edo hustubideren bat, edo hiri-altzarietako, argiteriako, lorategietako, zoladurako edo urbanizazioko beste elementu osagarriren bat, horiek obran jarri baino lehen udal zerbitzuen oniritzia lortu beharko da.

Kontratistak hondakinen plan bat aurkeztu beharko du, non agertuko duen nola egingo dien aurre obren ondorioz sortutako eraikitze- eta eraiste-hondakinei buruzko betebeharrei. Plana, zuzendaritza fakultatiboak ontzat eman eta jabeek onartu eta gero, obraren kontratu-agirien parte bat izatera pasatuko da.

11.- INGURUMEN ARLOKO ZEHAZTAPENAK

Enpresa lizitatzaileek Ingurumen-kudeaketako dokumentua erantsiko dute. Horretan, obren exekuzioak eragingo dituen inpaktuak minimizatzeko lizitatzaileak ezarriko dituen neurriak zehaztuko dira hala nola:

- Hondakinak prebenitzea eta arriskugarritasunaren arabera behar bezala kudeatzea (geldoak, ez-arriskutsuak eta arriskutsuak) eta azken kudeaketa-estrategiaren arabera (prebentzioa, berrerabiltzea, birziklatzea)
- Uraren, energiaren eta erregaien kontrola eta arrazoizko kontsumoa.

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

- Atmosferara egindako isuriak minimizatzea (hauts moduan, CO2 eta ibilgailuak eta ibilgailuen nahiz makineriaren beste errekuntza-gas batzuk, usainak,argi-kutsadura, etab.)
- Zaratak murriztea (indusketa-lanak, makina astunak, karga- eta deskarga- lanak, obrako makineria txikia, etab.).

Bergaran, sinadura elektronikoaren datan.

Sin.:

Garazi Baños Monasterio

Obra eta Zerbitzuetako burua

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

PLIEGO DE CLÁUSULAS TÉCNICAS PARA ADJUDICAR LOS TRABAJOS DE ASFALTADO DE DIVERSOS PUNTOS DEL MUNICIPIO

1.- OBJETO DEL CONTRATO

Constituye objeto del contrato la ejecución de los trabajos de asfaltado del ejercicio del año 2025 definidos en el proyecto.

La obra se realizará en varios puntos de Bergara:

- Ibarra kalea
- Iriburu kalea
- Entrada al barrio Osintxu

Son actuaciones puntuales en distintos puntos de la red viaria local, todos ellos situados dentro del municipio, conforme al proyecto de obra.

Por otra parte, se prevé que, en caso de ejecutarse menos unidades de obra de las inicialmente previstas y/o producirse una rebaja económica respecto al presupuesto, dicha disponibilidad económica podría utilizarse para ejecutar trabajos de asfaltado en otros puntos de Bergara, sin que ello suponga un coste adicional en traslado de maquinaria y personal, y siempre dentro del importe del precio de licitación. Dichos trabajos adicionales, se ejecutarán previa modificación expresa de resolución para la aprobación del presupuesto adicional y al mismo precio unitario del contratado en el presente contrato. Tanto los trabajos adicionales como los que se ejecuten dentro de este contrato de asfaltados se ejecutarían al mismo precio unitario que el contratado.

2.- PRESUPUESTO

El presupuesto total asciende a la cantidad de **199.857,20 euros, incluidos Gastos Generales, Beneficio Industrial e IVA.**

Únicamente serán admitidas las ofertas que se realicen en euros, a la baja y que se presenten siguiendo el modelo de proposición del Pliego de Cláusulas Administrativas.

Así mismo, deberá incluir una relación de precios unitarios que son los que regirán el contrato durante la ejecución del mismo.-

Para la realización del presupuesto se recomienda visitar todas las zonas.

3.- PLAZO DE EJECUCIÓN

El plazo máximo de ejecución de las obras objeto del Plan de Asfaltado será de **SIETE SEMANAS,** contados a partir del día siguiente al de la firma del acta de comprobación del replanteo.

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

Los trabajos de asfaltado y pintado podrán realizarse de noche y se podrá exigir la realización de algunos de ellos en periodo nocturno.

4.- MEDIOS AUXILIARES Y SEGURIDAD Y SALUD

El adjudicatario queda obligado a aportar a las obras el equipo de maquinaria y medios auxiliares que sea preciso para la buena ejecución de aquellas en los plazos convenidos en el contrato. La maquinaria y los medios auxiliares aportados deberán cumplir la normativa vigente. Asimismo, todos los vehículos asignados a la obra deberán tener toda la documentación administrativa en vigor (matrículas, seguros, etc). Concretamente, los vehículos deberán llevar su correspondiente matrícula cuando se desplacen entre los distintos puntos a asfaltar, o bien deberán ser trasladados en góndola sin que éste último suponga un coste adicional para el licitante.

Asimismo, deberá adoptar todas las medidas necesarias tendentes a observar la seguridad de los operarios, viandantes y propiedades colindantes.

Todos los trabajos, medios auxiliares y materiales, así como las unidades o elementos de seguridad y salud en el trabajo, que sean necesarios para la correcta ejecución y acabado de cualquier unidad de obra, se considerarán incluidos en el precio de la misma, aunque no figuren todos ellos especificados en la descomposición o descripción de los precios.

Por otra parte, no se admitirá ninguna partida extra correspondiente a la habilitación de accesos, transporte y carga-descarga del material de obra, o limpieza final de obra que no esté incluido en el presupuesto general de la obra, puesto que se considera que se encuentran englobados en los precios unitarios de las unidades de obra.

Asimismo, la empresa contratista deberá instalar por su cuenta las señales precisas para indicar el acceso a la obra y para indicar el comienzo de dichas obras y los plazos de ejecución de las obras, la regulación del tráfico o tránsito peatonal en las zonas de trabajo y los puntos de posible peligro, tanto en la propia zona de intervención como en sus lindes e inmediaciones, así como a adoptar todas las medidas de seguridad para las personas y bienes, que exija la naturaleza de la obra. Del mismo modo habrán de ser debidamente señalizados los tránsitos peatonales alternativos en la época de obra y las modificaciones que en estos se pudieran producir.

Asimismo, la empresa contratista señalizará las zonas de obra con la antelación que requiera la Policía Municipal del municipio, hará y divulgará las comunicaciones pertinentes para la actuación sea conocida por los afectados, tanto cuando la afección se derive hacia portales, garajes o locales comerciales como cuando se vean afectados aparcamientos en vía pública.

5.- SUBCONTRATISTAS, SUMINISTRADORES Y OTROS

En la documentación a presentar en el archivo electrónico A se señalarán las empresas que el adjudicatario prevea subcontratar (con indicación de las partes del contrato a realizar por cada una de ellas, pintado de viales…), para aquellos aspectos de la obra que deban ser realizadas por casas especializadas, salvo que estuviera clasificado u homologado en

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

la especialidad que se trate (instalaciones específicas...), así como el resto de labores en las que el licitador lo considere oportuno.

El contratista estará obligado a realizar una reunión con cada una de las empresas instaladoras subcontratadas, la dirección de obra y la gerencia de la obra, si esta última así lo considera, previamente a la ejecución de cualquier instalación y/o parte de la obra que se vaya a subcontratar.

6.- PROGRAMA DE TRABAJO.-

El Programa de Trabajos deberá actualizarse por el contratista cada vez que se modifiquen las condiciones contractuales, procediendo a la fijación o actualización y puesta al día del mismo conforme a las instrucciones que reciba de la Administración.

El director de obra realizará conjuntamente con el contratista las mediciones de la obra ejecutada en el día siguiente a su ejecución, personándose para ello los intervinientes en el lugar de la obra y debiendo disponerse de información gráfica de aquellas soluciones adoptadas que no sean superficiales y puedan ser apreciadas a simple vista.

El director de obra podrá, asimismo, cuando lo crea necesario, solicitar aclaraciones sobre las distintas partes de la obra, plan detallado de ejecución o realización de planos y cálculos suplementarios, antes de la ejecución de las mismas y para su aprobación, sin cuyo requisito no podrán llevarse a cabo.

El director de la obra podrá acordar no dar curso a las certificaciones hasta que el contratista haya presentado en debida forma el programa de trabajo, sin derecho a intereses de demora, en su caso, por el retraso en el pago de estas certificaciones.

7.- VISITAS DE OBRA

Las visitas de obra se realizarán siempre que la gerencia designada por el ayuntamiento lo considere necesario, y al menos una vez a la semana. A las mismas acudirán obligatoriamente los técnicos de la Dirección de Obra y el Jefe de Obra y cuando lo considere necesario algún miembro de la gerencia designada por el ayuntamiento.

8.- AUTORIZACIONES PRECISAS PARA LA EJECUCIÓN DEL PROYECTO

La empresa adjudicataria deberá realizar las gestiones precisas, tanto ante empresas suministradoras, como Administraciones competentes, para la obtención de las autorizaciones que sean precisas para la ejecución del Proyecto, sin perjuicio de que las solicitudes formales sean cumplimentadas por el Ayuntamiento.

9.- CIERRES Y SEÑALIZACIÓN DE OBRA

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

Será responsabilidad del adjudicatario el correcto cierre y señalización de la obra; contando para ello con el material y el personal señalista que garanticen la correcta materialización de la señalización.

El adjudicatario tiene la obligación de mantener la circulación rodada y peatonal de las inmediaciones de la obra en condiciones suficientes de seguridad, lo que exigirá la adopción de medidas reglamentarias de señalización vertical y/o horizontal, carteles informativos y rótulos indicadores que garanticen en todo momento la seguridad de los peatones, de los automovilistas y del propio personal de la obra. Asimismo, se cuidará la limpieza de las calzadas y aceras por motivos de seguridad vial.

Las señales de tráfico a colocar serán las reglamentarias, ajustando su disposición a las características urbanas, así como a la localización de la zona de obras en relación con el tramo viario afectado.

El texto de todos los carteles y señales que deba instalar el contratista para identificar la obra, y/o indicar y establecer las medidas de protección de la obra, figurará tanto en euskara como en castellano.

Los trabajos no se podrán iniciar sin el visto bueno de la Policía Municipal (943779106) a la señalización de tráfico.

10.- OTRAS OBLIGACIONES DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA

Las acometidas de obra necesarias para la correcta ejecución de las mismas, correrán a cargo de la empresa adjudicataria (suministro de energía eléctrica, telefonía, agua, etc.), tanto las gestiones oportunas para la obtención de las citadas acometidas como los consumos correspondientes. Asimismo, se deberán presentar en el Servicio Municipal de Aguas (943779116-616936943) las pertinentes solicitudes de acometida de abastecimiento de agua y saneamiento, sin las cuales no se podrá dar inicio a la obra.

A la terminación de las obras, en el plazo fijado por la dirección de obra y el promotor, el contratista deberá retirar todas las instalaciones, herramientas, materiales, etc. y proceder a la limpieza general de la obra.

En el caso de que las obras afecten a la reposición o modificación de redes de infraestructuras, arquetas, tapas de arquetas, sumideros, elementos de mobiliario urbano, luminarias, jardinería, pavimentación, u otros elementos componentes de la urbanización, con antelación a la puesta en obra de los mismos se deberá obtener la conformidad de los servicios municipales.

El contratista estará obligado a presentar un plan que refleje cómo llevará a cabo las obligaciones que le incumban en relación con los residuos de construcción y demolición que se vayan a producir en la obra. El plan, una vez aprobado por la dirección facultativa y aceptado por la propiedad, pasará a formar parte de los documentos contractuales de la obra.

11.- PRESCRIPCIONES MEDIOAMBIENTALES

ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

Las empresas licitadoras adjuntarán un documento de Gestión Ambiental, que detalle las medidas que la licitadora implantará para minimizar los impactos derivados de la ejecución de las obras. El programa contemplará elementos como:

- La prevención y correcta gestión de los residuos en función de su peligrosidad (inertes, no peligrosos y peligrosos) y de su estrategia de gestión final (prevención, reutilización, reciclaje)
- El control y consumo racional de agua, energía y combustibles
- La minimización de emisiones a la atmósfera (en forma de polvo, CO2 y otros gases de combustión de vehículos y maquinaria, olores, contaminación lumínica, etc.)
- La reducción de ruidos (en operaciones de excavación, de maquinaria pesada, en operaciones de carga y descarga, de pequeña maquinaria de obra, etc.)

En Bergara, a la fecha de la firma electrónica.

Firm.:

Garazi Baños Monasterio

Jefa de Obras y Servicios

EKS | CSV: ESKUda87d471-aa87-4900-8f67-23ec89d0aa9b

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07410